

Edurne Urrutia Uriarte eta Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko

KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA eta IDAZKARI NAGUSIAREN

68/2019 TXOSTENA

Gaia: Beruala S.A.k emandako emantzipaziorako diru-laguntzak

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 4.1.b.5 eta 3.3.a artikulua

1. Aurrekariak

Lehen: Alkatetzak txostena eskatu du hiru gairen azterketa juridiko-ekonomikoa egiteko:

- Beruala S.A.ren gaitasuna diru-laguntzak emateko
- Helburu bera duten diru-laguntzetan bikoizketak egon daitezkeen
- Diru-laguntzen onuradunak gaitasun ekonomikoa izan behar badu%100a diruz laguntzen ez den kasuetan

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundeen Oinarriak arautzen dituen Legea
- Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-laguntzei buruzko Orokorra
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onetsi duena
- Urriaren 1ko 40/2015 Sektore Publikoko Erregimen Juridikoko Legea

2.2. Azterketa juridikoa

a) Beruala S.A.ren gaitasuna diru-laguntzak emateko

Hasteko Diru-laguntzen Lege Orokorren hitzaurrera jo behar dugu: *“ Las subvenciones son una técnica de fomento de determinados comportamientos considerados de interés general e incluso un procedimiento de colaboración entre la Administración Pública y los particulares para la gestión de actividades de interés público..... Además una*



parte importante de la actividad financiera del sector público se canaliza a través de ellas para dar respuesta, con medidas de apoyo financiero, a demandas sociales y económicas de la sociedad”

Hori argituta, diru-laguntzak emateko prozedura 3 fasetan laburtu dezakegu:

- **Hasiera fasea:** Prozeduraren deialdiaren bitartez oinarriak onartzean egiten da.
- **Instrukzio fasea:** Eskariaren ebaluazioa egiten da onartutako oinarriak eskatzen duenaren arabera.
- **Erabaki fasea:** Eskari guztiek ikusirik nori ematen zaion diru-laguntzaren erabakia izango da.

Hiru fase horietatik zuhurtzi handienekoa lehenengoa da, zeren bertan erabakitzen baita zein den interes publikoa diru-laguntzarekin bete gura dena, eta bere sarbiderako baldintzak ezartzen baitira.

Diru-laguntzen prozesuak ahalmen administratiboko lana suposatzen du, interes orokorrarekin lotutako konnotazioekin. Zentzu honetan, Andaluziako Justiziako Goiko Auzitegiak 2011ko apirilaren 7ko sententzian (JUR/2011/193919) dio: *“ Son subvenciones las ayudas o auxilios económicos directos, concedidos por una Administración al beneficiario, a título no devolutivo y afectada al cumplimiento de una finalidad de interés público. Son una medida de la actividad administrativa de fomento. Su ejercicio requiere de potestades administrativas para tramitar y resolver el procedimiento y, en su caso, imponer sanciones y obtener el reintegro de las cantidades indebidamente percibidas”.*

Azken finean, diru-laguntza jarduera hau egiten duten subjektuak ahalmen administratiboarekin egiten ari dira, aurkaragarri eskumen auzi bidezko-administratiboaren aurrean.

Gainera, Sektore Publikoko Erregimen Juridikoko 40/2015eko Legeak 2. artikuluko 2 eta 3 ataletan esaten du: *“ 2. El sector público institucional se integra por:*

- a) Cualesquiera organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes de las Administraciones Públicas.*
- b) Las entidades de derecho privado vinculadas o dependientes de las Administraciones Públicas que quedarán sujetas a lo dispuesto en las normas de esta*



ley que específicamente se refieran a las mismas, en particular a los principios previstos en el artículo 3, y en todo caso, cuando ejerzan potestades administrativas.

c) Las universidades públicas que se regirán por su normativa específica y supletoriamente por las previsiones de la presente ley.

3.- Tienen la consideración de Administraciones Públicas la Administración General del Estado, las Administraciones de las Comunidades Autónomas, las Entidades que integran la Administración local, así como los organismos públicos y entidades de derecho público previstos en la letra a) del apartado 2º

Legea argia da eta sozietate publikoak ezin dute ahalmen administratiboak egin ez direlako Administrazio Publikoak. Hori dela eta, Beruala S.A.k ezin izango ditu diru-laguntzen jarduerak prestatu ahalmen administratiboa ez izateagatik.

Zentzu honetan Robert P.Cortell Giner bere liburuan “El concepto legal de subvención y entidades privadas del Sector Público ” esaten du:

“ En consecuencia, si una sociedad mercantil pública o una fundación del sector público realiza una entrega dineraria sin contraprestación para fomentar actividades de utilidad pública o interés social o promover fines públicos se estará comportando impropriamente como un poder público, pues estará ejerciendo la potestad administrativa subvencional. Como señalan García de Enterría y Fernández Rodríguez, “la Administración Pública, a diferencia del empresario privado, no puede desentenderse a través de mecanismos artificiosos de su condición de poder público sujeto a la legalidad, anclada hoy, en cuanto a sus principios básicos, en el propio texto constitucional, y que tienen el necesario desarrollo en la legalidad administrativa ordinaria”

Sozietate publikoagatiko ahalmen administratibo hauek egitearen ondorio juridikoa balio gabetasun osoko erabakia izango da, Administrazio Publikoetako Prozedura Administratibo Orokorren 39/2015 Legearen 47 f) artikulua araberara.

b) Helburu bera duten diru-laguntzetan bikoizketak egon daitezkeen

Gai hau aztertzeke ezinbestekoa da kontuan hartzea ea aztertzen ari garen gaia, Udalaren eskumen propio edo delegatuen artean badago edo ez. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17. artikuluan eta hurrengoetan Udalaren eskumen



propioak eta delegatuak jasotzen dira. Legeak 17.7 artikuluan dio udalerriek erabili ahal izango dituztela eskumen propioak etxebizitzaren plangintzan, programazioan eta kudeaketan. Baina ematen du artikulua hori hirigintzako eskumenekin lotura gehiago duela, emantzipazioa sustatzeko neurriekin baino.

Propioak edo delegazioz ematen ez diren eskumenen inguruan Toki Erakundeek Oinarriak arautzen dituen Legearen 7.4. artikulua dio: *Las Entidades Locales solo podrán ejercer competencias distintas de las propias y de las atribuidas por delegación cuando no se ponga en riesgo la sostenibilidad financiera del conjunto de la Hacienda municipal, de acuerdo con los requerimientos de la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y no se incurra en un supuesto de ejecución simultánea del mismo servicio público con otra Administración Pública. A estos efectos, serán necesarios y vinculantes los informes previos de la Administración competente por razón de materia, en el que se señale la inexistencia de duplicidades, y de la Administración que tenga atribuida la tutela financiera sobre la sostenibilidad financiera de las nuevas competencias.*

En todo caso, el ejercicio de estas competencias deberá realizarse en los términos previstos en la legislación del Estado y de las Comunidades Autónomas.

Beraz, emantzipaziorako diru-laguntzak emateko justifikatu beharko da ez dela arriskuan jartzen jasangarritasun finantzieroa eta ez dagoela bikoizketarik. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, hurrenez hurren, dagozkion txosten lotesleak eskatu beharko zaizkie.

Gogoratu behar da, behin txosten horiek jasota eta aldekoak badira, diru-laguntzak bateragarriak izan daitezkeela helburu bera duten beste diru-laguntza, laguntza edo sarrera batzuekin. Hori guztia Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.m zein 19.2 artikuluekin bat eta Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamenduen 65.c artikuluekin bat.

**Sinadurea eta data**

MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-
KONTUHARTZAILEA - 20/11/2019
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 20/11/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/11/2019
08:26:38

DOCUMENTO: 20190211078

Datea: 20/11/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

c) Diru-laguntzen onuraduna gaitasun ekonomikoa izan behar badu %100a diruz laguntzen ez den kasuetan

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 19.3. artikulua zehazten du: *El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.*

Beraz, %100eko diru-laguntzak onartzen dira. Hori ondorioztatzen da ere Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamenduaren 32. artikulutik: *Salvo que las bases reguladoras establezcan otra cosa, el presupuesto de la actividad presentado por el solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose éste como un porcentaje del coste final de la actividad. En este caso, el eventual exceso de financiación pública se calculará tomando como referencia la proporción que debe alcanzar dicha aportación respecto del coste total, de conformidad con la normativa reguladora de la subvención y las condiciones de la convocatoria.*

Dena den, diru-laguntzak ez badira %100era heltzen onuradunaren esku gelditzen da %100a finantzatzeko betebeharra. Hori Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamenduaren 32. Artikulua 2. Paragrafoaren arabera, zeinak dioen:

Si la normativa reguladora de la subvención hubiese fijado la aportación pública como un importe cierto y sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total, se entenderá que queda de cuenta del beneficiario la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada en tal caso la financiación pública únicamente por el importe que rebasara el coste total de dicha actividad.

Horrekin lotuta, Erregelamenduaren 72. e) atalak dio diru-laguntzak justifikatzerakoan beharrezkoa dela diruz lagundu den ekintza finantzatu duten sarreraren edo beste diru-laguntzen erlazio zehatza egitea, zenbatekoak eta jatorria adieraziz.



3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz, hurrengo ondorioztatu daiteke:

a) Beruala S.A.ren gaitasuna diru-laguntzak emateko

Beruala S.A.k ez dauka eskumenik diru-laguntzak emateko, ez daukalako ahalmen administratiborik ez delako Administrazio Publikoa (bai ostera sektore publikoa).

Ahalmen administratibo horiek Beruala S.A.ren eskutik onartzearen ondorio juridikoa da baliogabetasun osoko erabakia izatea.

b) Helburu bera duten diru-laguntzetan bikoizketak egon daitezkeen

Komeni da emantzipaziorako diru-laguntzak emateko justifikatzea ez dela arriskuan jartzen jasangarritasun finantzieroa eta ez dagoela bikoizketarik. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, hurrenez hurren, dagozkion txosten lotesleak eskatu beharko zaizkie.

c) Diru-laguntzen onuradunak gaitasun ekonomikoa izan behar badu%100a diruz laguntzen ez den kasuetan

Diru-laguntzak ez badute jardueraren %100a estaltzen onuradunaren esku gelditzen da %100a finantzatzeko betebeharra.

Hori da gure ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, alkateak egoki deritzona erabakiko du.

Oh. Orri oinean sinatzaileak eta data

| | | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI | Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E30003388600N3P7W8T6B7U4 | Sinadurea eta data MIREN EDURNE URRUTIA URIARTE(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)- KONTUHARTZAILEA - 20/11/2019 JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/11/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/11/2019 08:26:38 | DOCUMENTO: 20190211078 Data: 20/11/2019 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia |
| | | | |